



**UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIA.
2023KO ABENDUAREN 22KO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.**

Honako batzarkide hauek bertaratu dira:

Aizarnazabalgo ordezkaria

Mari Karmen Arregi Agirre.....(% 0,80)
Unai Alberdi Arakistain.....(% 0,79)
Ana Isabel Lizarralde Ibar.....(% 0,79)

Azkoitiko ordezkariak

Ana Azkoitia Urteaga (% 11,91)
Asier Altuna.....(% 11,91)
Jose Joakin Etxaniz.....(% 11,90)

Azpeitiko ordezkariak

Joanes Amenabar Altuna.....(% 15,53)
Nagore Alkorta Elorza.....(% 15,53)
Jabier Altuna Larrañaga.....(% 15,53)

Beizamako ordezkariak

Aitor Arruti Arranz.....(% 0,14)

Bidania-Goiatzeko ordezkaria

Jose Migel Mendizabal Arnaez.....(% 0,54)

Errezilgo ordezkariak

Luis Maria Arzallus Amenabar.....(% 0,58)
Nekane Zinkunegi Barandiaran.....(% 0,58)

Zestoako ordezkariak

Mikel Arregi Urrutia.....(% 3,85)
Zigor Plazaola Anduaga.....(% 3,84)

Idazkari kontu-hartzailea

Olatz Eizagirre Orbegozo

Ingurugiro Etxea Fundazioaren zuzendaria

Orkatz Goenaga Ormazabal

Administrazio Orokorreko Teknikaria

Estitxu Lasa Iturrioz

Aholkulari juridikoa

Alejandro Castro Ubetagoyena.

Ez dira etorri honako batzarkide hauek:

Beizamako ordezkaria

Unai Barrutibengoa Olazabal.....(% 0,14)
Eneko Oregi Ziurraga.....(% 0,14)

Bidania-Goiatzeko ordezkaria

Juan Ignazio Zinkunegi Urdapilleta.....(% 0,54)
Josune Landa Gurrutxaga.....(% 0,54)

Errezilgo ordezkariak

Joseba Iñaki Labaka Beristain.....(% 0,58)

Zestoako ordezkariak

Garikoitz Mendizabal Etxeberria.....(% 3,84)

2023ko abenduaren 22an, arratsaldeko 18:20etan, Urola Erdiko Mankomunitateko aretoan, Plaza Nagusia, 11-1, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren ohiko osoko bilkura bildu da.

Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Bidania-Goiatz, Errezil eta Zestoako udalerriek osatzen dute Mankomunitatea, eta bertaratu diren ordezkariak toki-erakundearen % 94,22a ordezkatzan dute. Mankomunitatearen estatutuen 10.6 artikulua honako hiru betekizun hauek ezartzen ditu Batzar Nagusiaren lehenengo deialdia baliozkoa izateko:

- 1) Batzarkideen erdia gehi bat egotea.
- 2) Batzarkideen botoen erdia gehi bat ere izatea.
- 3) Mankomunitatean ordezkariak dituzten udalen erdia gehi bat egotea ere.

Hiru baldintza horiek lehenengo deialdian bete dira.



Lehendakariak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita % 99,22ko quoruma zegoela egiaztatu ondoren), eta bost udalerriko ordezkariak bertaratu direla adierazi eta gero, Batzar Nagusiko bilkurari hasiera eman dio. Jarraian, batzarkideek deialdiaren gai-zerrendan jasota dauden gaiak jorratu dituzte.

1. 2023ko abenduaren 2ko Batzar Nagusiko ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.

Gai ordenarekin batera akta ez zen bidali, beraz bere onarpena hurrengo bilkurarako uzten da.

2. 2023rako Aurrekontu Orokorren proiektua onestea

Lehenik Lehendakariak Mankomunitateak azken urtetan izandako gora berak direla eta, aktan jasota gera dadin hurrengo hausnarketa eta konpromezua azaltzen du:

Azpeitian, 2023ko abenduaren 22an

Badakit, batetik eta bestetik hala irisi zaidalako, azken urteetan tira-bira dezente izan dela Lapatzeko gerakin eta fondo-poltsan dauden diruen kudeaketaren inguruan. Zehazki, Azpeitiko udalarentzat hitzarmen bidez bideratu ziren 3,85M€-ren inguruan, hauzia epaitegietaraino iritsi zen.

Legegintzaldi berriaren hasieran gaudela eta Mankomunitateko Lehendakari berria izanik, egoera hau baliatu nahiko nuke tira-bira hauekin behin betikoz amaitu eta etorkizunera begirako jarrera eraikitzaile batean kokatzen saiatzeko. Horretan lagundu dezakeelakoan, konpromisoa hartzen dut datorren 2024 urte honetan gerakin hauekin zer egin daitekeen aztertzeko. Azterketa honen helburua honakoa litzateke: gerakin honen zati bat Mankomunitatea osatzen dugun herrietara bideratu al daitekeen jakitea, beti ere bideratze honek Lapatz Zabortejiaren zigilatze eta mantentze lanak oztopatzen ez baditu.

Ondorioak eta aurrera begira eman beharreko pausoak adostu asmoz, azterketa honen ondoren jasotako emaitzak Mankomunitateko herriei elkarbanatuko dira.

Azkoitia andereak, agertutako konpromezua eskertzen du, eta beraiek Lapatzeko kontseiluan emandako aldeko botoa berretsiko dutela diote. Hortik haratago, gustatuko litzaioke hondakinak jasotzeko sistema eraginkor baten hautua egitea eta behingoz erabaki bat hartzea, eta horren arabera egin beharreko inbertsioak erabakitzea.

Arregi jaunak, aurreko legealdiko aurrekariak aipatzen ditu. Ekarpenen buruz ere hausnarketa egiten du, eta gaia aztertu behar dela uste du, arazoa ez dela bakarrik ekonomikoa, baina egia dela



arlo horrek eragin handia duela. Bere kasuan sistema eramangarriagoa ezarri behar dela eta horretarako lanketa egiteko deia agertzen du.

Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2023ko abenduaren 15ean egindako proposamena, 2024. ekitaldiko aurrekontu proiektua hasieraz onesteko.

AURREKARIAK

Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak 2024ko ekitaldiko aurrekontu proiektua aurkeztuko du 2023ko abenduaren 15an.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Eskumena:

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak honakoa dio 14. artikuluan:

«1.- Toki erakundearen administrazioaren aurrekontua haren buruak prestatuko du; horretarako, hurrengo ekitaldirako aurrekontua egiteko behar diren gidalerro ekonomikoak eman ahal ditu.

2.- Administrazio organismo autonomo bakoitzaren aurrekontua, orokorraren osagai dena, hasieran organo eskudunak proposatuko duena, atxikita dagoen toki erakundeko buruari bidaliko zaio irailaren 30a baino lehen.

3.- Merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoek udal toki erakundeko buruari 6. Artikuluan ezarritako agiriak bidali behar dizkiote irailaren 30a baino lehen.

Kontabilitate orri horiek oinarri hartuta, toki erakundeko buruak administrazio aurrekontuaren egitura ekonomikoari dagozkionak prestatuko ditu, artikuluan mailan gutxienez.

4.- Aurreko idatz-zatietan aipatutako aurrekontuak eta aurreikuspen orriak oinarritzat hartuta, toki erakundeko buruak aurrekontu orokorra prestatuko du eta, Kontu-hartzaitzak txostena eman ondoren, arauzko tramitazioa urriaren 15a baino lehen eginda, 6. artikuluan zehaztutako eranskinekin eta agiriarekin bidaliko dio udalbatzari, hark onetsi dezan edo zuzen dezan edo itzul dezan».

II. Araubidea:

1. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea.

2. Urola Erdiko Mankomunitatearen estatutuak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2011ko ekainaren 9a, 109. zenbakia).

3. 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, honakoa xedatzen du:

3. artikulua. Definizioa eta integrazioa.



«1.- Aurrekontu orokorrak toki erakundeek ekitaldi ekonomiko eta aurrekontu ekitaldi bakoitzean egin beharreko jarduera ekonomikoren zuzentegitarauko erabakien adierazpen formalak dira, finantzen eta kontabilitatearen eremuan.

2.- Aurrekontu orokorrak, gainera, toki erakundeen baliabideen administrazio zuzenaren kontrolerako tresna ere badira.

3.- Aurrekontu orokorretan toki erakundearen beraren aurrekontua, beraren organismo autonomoenak eta beraien menpeko sozietate publikoenak biltzen dira».

Foru Arauaren hitzaurreak dio: «Urteko aurrekontua toki administrazioaren zuzentegitarauaren adierazpena da eta bertan haren organismo autonomoen eta sozietate publikoen aurrekontuak sartzen dira (sozietate publikoak dira sozietatearen kapitalaren edo fondoaren % 50 baino gehiagoko partaidetza dutenak).

6. artikulua Aurrekontu orokorren edukia arautzen du, honela: 1. idatz zatian Toki erakundeek eta beraien organismo autonomoen aurrekontuak arautzen dira eta 2. idatz zatian, aldiz, Merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoen aurrekontuak.

Horiei dagokienez, 14.3 artikulua ezartzen du honako hau:

«Merkataritzako organismo autonomo eta sozietate publikoek udal toki erakundeko buruari 6. Artikuluan ezarritako agiriak bidali behar dizkiote irailaren 30a baino lehen.

Kontabilitate orri horiek oinarri hartuta, toki erakundeko buruak administrazio aurrekontuaren egitura ekonomikoari dagozkionak prestatuko ditu, artikuluan mailan gutxienez».

Hurrengo zenbakian arau horrek hauxe xedatzen du:

«4.- Aurreko idatz zatietan aipatutako aurrekontuak eta aurreikuspen orriak oinarritzat hartuta, toki erakundeko buruak aurrekontu orokorra prestatuko du eta, Kontu hartzaileak txostena eman ondoren, arauko tramitazioa urriaren 15a baino lehen eginda, 6. artikuluan zehaztutako eranskinekin eta agiriarekin bidaliko dio udalbatzari, hark onetsi dezan edo zuzen dezan edo itzul dezan».

Foru Arau horren 14 artikulua 5. zenbakiak arautzen du aurrekontu orokorrak onartzeko erabakia, honela:

«Onespen erabakia bakarra izango da eta bertan aurrekontu orokorreko aurrekontuak xehakatu behar dira; haiek ezin dira onetsi bereiz».

Azkenik 21/2003 Foru Arauaren 15. artikulua Ondorengo tramiteak arautzen ditu:

«1. Aurrekontu orokorra hasieran onetsita, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu ondoren jendaurrera azalduko da hamabost egunetan; epealdi horretan interesatuek aztertu eta udalbatzari erreklamazioak aurkeztu ahal izango dizkiote. Epealdi horretan erreklamazioak aurkeztu ez bada, aurrekontua behin betiko onetsitzat joko da. Bestela, udalbatzak hilabeteko epea izango du erreklamazioak ebazteko.

2.- Udalbatzak aplikatu behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen onetsi beharko du behin betiko aurrekontu orokorra.



- 3.- Aurrekontu orokorra behin betiko onetsita, udalaren aldizkari ofizialean argitaratuko da, halakorik badu, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere bai, aurrekontuak kapituluka laburtuta.
- 4.- Behin betiko onetsi ondoren, aurrekontu orokorraren kopia bidaliko zaio Gipuzkoako Foru Aldundiari, eta gero hark administrazio eskudunei bidaliko die.
- 5.- Aurrekontuaren eta beraren aldaketen kopia jendearen esku egon beharko da, informazio gisa, behin betiko onesten denetik ekitaldia amaitu arte».

2003ko abenduaren 19ko Toki entitateen aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak 14.4 artikuluan xedatutakoaren arabera onartu behar dira Toki entitateetako aurrekontu orokorrak,

III. Gaiaren azterketa

a) Edukia:

Lehendakariak 2024ko ekitaldiko Aurrekontu Orokorra eta bere barne dauden aurrekontuak aurkeztu ditu:

Mankomunitatearen Aurrekontua 5.944.367,34 eurokoa dena.

Urola-Erdiko Lapatx Zabortegia, SA sozietate publikoaren Aurrekontua: 3.100.353,00 eurokoa dena.

Aurrekontu Orokorraren azterketak hau azaltzen digu:

1) Urola Erdiko Mankomunitatearen aurrekontu propioak honako hauek dituela:

Diru sarreren eta gastuen egoera-orria

Programa gastuen taula

Aurrekontuaren edukiaren memoria

Inbertsioen eranskina

Transferentzia arrunten eta kapitalezkoen eranskina

Konpromiso kredituen eranskina

Langileari buruzko eranskina

Zorpetzearen eranskina

2)Urola-Erdiko Lapatx Zabortegia SAre aurrekontuak honako hauek dituela:

a) Sayma enpresak 2023ko azaroan egindako dosierra, 2024ko abenduaren 31ko egoera-balantzea eta galdu-irabazien kontua barne:

b) Iñaki Egiguren Sasiain jaunak egindako dokumentazioa

- Gestioaren txostena (2023ko azaroaren 24an)

- Inbertsioen eranskina

- Ez dago transferentzia arrunten eta kapitalezkoen eranskina (ez daude)

- Ez dago zorpetzearen eranskina (ez dago zorrik)

- Langileari buruzko eranskina

3) Idazkari kontu-hartzaileak ekonomia eta finantza txostena eta aurrekontuaren egonkortasunari buruzko txostenak egin ditu.

4) Aurrekontua betearazteko araudia 2024

b) Izapideak:



Urola Erdiko Batzar Nagusiak aplikatu behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehen onetsi beharko zuen behin betiko aurrekontu orokorra.

Aurrekontu Orokorra behin behingoz onesteko gehiengo osoaren aldeko bozketa behar da. Behin-behineko erabakia hartu ondoren, GAOean argitaratuko da eta Mankomunitateko iragarki taulan jarriko da jendeari horren berri emateko eta, hamabost lan eguneko epean, jendeak aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkez ditzan.

- Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, Mankomunitateko Batzar Nagusiak hilabeteko epean erabaki beharko du eta Aurrekontu Orokorra behin-betikoz onartu.

Hau guztia kontuan harturik, proposatzen diot Urola Erdiko Batzar Nagusiari onartzea honako

PROPOSAMEN HAU

LEHENENGOA. Behin behingoz onestea Urola Erdiko Mankomunitateko 2024ko Aurrekontu Orokorra.

2024. urtea

AURREKONTUA PROPIOA

GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA

1. Kapituluak: Pertsonal gastuak: 1.296.116,86
2. Kapituluak: Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan: 3.063.588,43
3. Kapituluak: Finantza gastuak: 200,00
4. Kapituluak: Transferentzia arruntak: 4.300,00
6. Kapituluak: Inbertsio errealak: 1.580.062,05
9. Kapituluak: Pasibo finantzarioak: 100,00

GUZTIRA: **5.944.367,34**

SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA

3. Kapituluak: Tasak eta bestelako sarrerak: 518.811,03
4. Kapituluak: Transferentzia arruntak: 3.845.494,26
7. Kapituluak: Kapital transferentziak: 280.062,05
9. Kapituluak: Pasibo finantzarioak: 1.300.000,00

GUZTIRA: **5.944.367,34**



UROLA-ERDIKO LAPATX ZABORTEGIA, Saren AURREKONTUA

GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA

1. Kapituluak: Pertsonal gastuak: 323.868,00
2. Kapituluak: Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan: 1.096.485,00
3. Kapituluak: Finantza gastuak:
4. Kapituluak: Transferentzia arruntak:
6. Kapituluak: Inbertsio errealak: 1.680.000,00
8. Kapituluak: Finantza aktiboak:

GUZTIRA: **3.100.353,00**

SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA

3. Kapituluak: Tasak eta bestelako sarrerak: 2.789.313,00
4. Kapituluak: Transferentzia arruntak:
5. Kapituluak: Ondare sarrerak: 311.040,00
8. Kapituluak: Finantza aktiboak:

GUZTIRA: **3.100.353,00**

AURREKONTU BATERATUA

GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA

1. Kapituluak: Pertsonal gastuak: 1.619.984,86
2. Kapituluak: Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan: 3.916.746,43
3. Kapituluak: Finantza gastuak: 200,00
4. Kapituluak: Transferentzia arruntak: 4.300.000,00
6. Kapituluak: Inbertsio errealak: 3.260.062,05

GUZTIRA: **8.801.393,34**

SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA

3. Kapituluak: Tasak eta bestelako sarrerak: 3.064.797,03
4. Kapituluak: Transferentzia arruntak: 3.845.494,26
5. Kapituluak: Ondare sarrerak: 311.040,00
7. Kapituluak: Kapital transferentziak: 280.062,05
9. Kapituluak: Pasibo finantzarioak: 1.300.000,00



GUZTIRA: **8.801.393,34**

BIGARRENA. Jendaurreko erakustaldian jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta iragarki-taulan jarriz, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten HAMABOST LAN EGUNEKO EPEAN.

Alegaziorik aurkeztu ezean, behin betikoz onartutzat joko da.

Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, Mankomunitateko Batzar Nagusiak hilabeteko epean erabaki beharko du eta Aurrekontu Orokorra behin-betikoz onartu.

HIRUGARRENA. Gipuzkoako Foru Aldundiari honen berri ematea, Aurrekontu Orokorren ale bat bidaliz.

LAUGARRENA. Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SARI horren berri ematea.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK

Joanes Amenabar Altuna

Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:

Alde: % 82,32

Aizarnazabalgo ordezkariak (%2,38): M^a Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Unai Alberdi Arakistain J. (%0,79), Ana Isabel Lizarralde Ibar A. (% 0,79)

Azkoitiko ordezkaria (%23,82): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 14): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%0,54): Jose Miguel Mendizabal Arnaez J. (%0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi A. (% 58).

Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

Kontra: % 00,00

Abstentzioa: % 11,90

Azkoitiko ordezkaria (%11,90): Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90)

Bertaratutakoek, gehiengoz, honakoa onartu dute:



LEHENENGOA. Behin behingoz onestea Urola Erdiko Mankomunitateko 2023ko Aurrekontu Orokorra.

2024. urtea

AURREKONTUA PROPIOA

GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA

1. Kapituluak: Pertsonal gastuak: 1.296.116,86
2. Kapituluak: Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan: 3.063.588,43
3. Kapituluak: Finantza gastuak: 200,00
4. Kapituluak: Transferentzia arruntak: 4.300,00
6. Kapituluak: Inbertsio errealak: 1.580.062,05
9. Kapituluak: Pasibo finantzarioak: 100,00

GUZTIRA: 5.944.367,34

SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA

3. Kapituluak: Tasak eta bestelako sarrerak: 518.811,03
4. Kapituluak: Transferentzia arruntak: 3.845.494,26
7. Kapituluak: Kapital transferentziak: 280.062,05
9. Kapituluak: Pasibo finantzarioak: 1.300.000,00

GUZTIRA: 5.944.367,34

UROLA-ERDIKO LAPATX ZABORTEGIA, Saren AURREKONTUA

GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA

1. Kapituluak: Pertsonal gastuak: 323.868,00
2. Kapituluak: Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan: 1.096.485,00
3. Kapituluak: Finantza gastuak:
4. Kapituluak: Transferentzia arruntak:
6. Kapituluak: Inbertsio errealak: 1.680.000,00
8. Kapituluak: Finantza aktiboak:

GUZTIRA: 3.100.353,00



SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA

- 3. Kapituluua: Tasak eta bestelako sarrerak: 2.789.313,00
- 4. Kapituluua: Transferentzia arruntak:
- 5. Kapituluua: Ondare sarrerak: 311.040,00
- 8. Kapituluua: Finantza aktiboak:

GUZTIRA: **3.100.353,00**

AURREKONTU BATERATUA

GASTUEN AURREKONTUA KAPITULUKA

- 1. Kapituluua: Pertsonal gastuak: 1.619.984,86
- 2. Kapituluua: Gastuak ondasun arrunt eta zerbitzuetan: 3.916.746,43
- 3. Kapituluua: Finantza gastuak: 200,00
- 4. Kapituluua: Transferentzia arruntak: 4.300.000,00
- 6. Kapituluua: Inbertsio errealak: 3.260.062,05

GUZTIRA: **8.801.393,34**

SARREREN AURREKONTUA KAPITULUKA

- 3. Kapituluua: Tasak eta bestelako sarrerak: 3.064.797,03
- 4. Kapituluua: Transferentzia arruntak: 3.845.494,26
- 5. Kapituluua: Ondare sarrerak: 311.040,00
- 7. Kapituluua: Kapital transferentziak: 280.062,05
- 9. Kapituluua: Pasibo finantzarioak: 1.300.000,00

GUZTIRA: **8.801.393,34**

BIGARRENA. Jendaurreko erakustaldian jartzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta iragarki-taulan jarritz, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten HAMABOST LAN EGUNEKO EPEAN.

Alegaziorik aurkeztu ezean, behin betikoz onartutzat joko da. Epe horretan erreklamaziorik aurkezten bada, Mankomunitateko Batzar Nagusiak hilabeteko epean erabaki beharko du eta Aurrekontu Orokorra behin-betikoz onartu.



HIRUGARRENA. Gipuzkoako Foru Aldundiari honen berri ematea, Aurrekontu Orokorraren ale bat bidaliz.

LAUGARRENA. Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAri horren berri ematea.

3. Lapatx zabortegiak (Azpeitia) 2024, urterako zerbitzuak emate eta baimendutako isurketa jarduerak egiterako tasa onestea.

Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena, Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAREN zerbitzu teknikoek 2023ko abenduaren 5ean proposatutako tarifak onestekoa.

AURREKARIAK

Urola Erdiko Lapatx Zabortegia SAREN zerbitzu teknikoek 2023ko abenduaren 5ean bidali dute tarifen proposamena.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Eskumena. Tasa ezartzeko eskumena

Urola Erdiko Mankomunitateak ez du zergarik onartzeko ahalmenik, 2011ko ekainaren 9ko datan eta 109 zk.an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako estatutuen 2. Atalaren arabera.

Izan ere, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 2. atalak honakoa dio:

“1. Gipuzkoako udalerrien Hazienda, jarraiko baliabideok osotuta egongo da:

- a) Beren ondare eta Zuzenbide pribatuko gainerakoetatik etorritako sarrerek.
- b) **Zerga, tasa eta kontribuzio berezietan sailkatutako tributu propioek.**
- c) Tributu Kontzertatuetan, Ez-kontzertatuetan eta gainerako sarrera publikoetan dituzten partaidetzak.
- d) Dirulaguntzak.
- e) **Prezio publikoen kontzeptupean jasotakoek.**
- f) Kreditu eragiketen emaitzak.
- g) Dagozkien eskumenen eremuan izandako isun eta zehapenen emaitzak.
- h) Zuzenbide publikoko gainerako prestazioek”.

Nahiz eta estatutuek 2.2 b) atalean Mankomunitateak duen finantza-ahalmena arautu, ondorengo 23. atalean ez dute, ordea, jasotzen, tasa Mankomunitateak dituen finantza baliabideen artean.

“23. artikulua. Ekonomia- eta finantza-baliabideak

Mankomunitateak ondoko ekonomia- eta finantza-baliabide hauek izan ditzake:

- a) Mankomunitatea osatzen duten toki-erakundeek egindako ohiko ekarpenak.
- b) Bere ondaretik eta zuzenbide pribatuko gainerako baliabideetatik datozen diru-sarrerek.
- c) Diru-laguntzak.
- d) Kreditu-eragiketengatik diru-sarrerek.



- e) Bere eskumen-esparruko isun eta zigorrerengatik diru-sarrerak.
- f) Zuzenbide publikoko beste prestazio batzuk”

II. Tasen eta prezio publikoen araudia.

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 20. atalean eta hurrengoetan. Prezio publikoak 44. Ataletan eta hurrengoetan.

III. Gaiaren azterketa

Nahiz eta Ekonomia Jasangarritasunaren 4/2011 Legeak Zergari buruzko 58/2003 Lege Orokorraren 2.2 a) atalaren 2. paragrafoa ezabatu, eta nahiz eta (Estatuko) Zergaren Zuzendaritza Orokorrak 2011ko uztailaren 26an emandako txostenak tokiko sozietate pribatuek eta kudeatzaile pribatuek kudeatutako zerbitzuen truke jasotzen dituzten ordainsariak prezio pribatutzat jotzea, egia da ez dagoela gai hori ebazten duen epairik. Joera orokorra honakoa izan da:

Konstituzio Epaitegi 185/1985 epaiaren aurretik: prezio publiko edo pribatutzat jotzen zen.

Konstituzio Epaitegi 185/1985 epaiaren ondoren, legeria aldatu zen: tasatzat edo zergatzat jo dute Auzitegi Gorenaren zenbait epaiak (2007/04/07; 2009/07/20).

Haratago, Auzitegi Gorenak 2013ko uztailaren 1ean eta 2015eko ekainaren 25ean emandako epaiak gai hau zeharka aipatzen dute legearen aldaketa baina ez dute horren inguruan ezer ebazten, zeren eta ebazten dituzten kasuak gertatu baitziren 4/2011 Legea indarrean sartu baino lehenago); sektore doktrinal handiak aipatzen du zerbitzuen kontraprestazio ekonomikoak zergatzat jo behar direla (ez prezio publiko edo pribatutzat) eta beste batek prezio publikotzat jotzen ditu.

Prezio publikoak eta zergak onartzeko eskumena ez du Urola Erdiko Mankomunitateak; **prezio pribatuak onesteko, ordea, bai.**

IV. Txosten tekniko ekonomikoak

11/1989 Legearen 24. eta 25. Atalek xedatutako eraginetarako, Sayma enpresaren azterketa ekonomikoak aurreikusten duen zerbitzuaren koste azterketan eta Urola Erdiko Lapatx Zabortegia S.Aren gerentzia eta administrazio buruaren irizpideetan oinarritzen da aurkeztutako tarifen proposamena.

PROPOSAMENA

Segurtasun printzipioaren eta Toki ogasunek izan behar duten finantza-askitasunaren aldetik, eta Urola Erdiko Mankomunitateko bilketa eta tratamendu zerbitzuaren garapena ikuspuntu ekonomikotik aztertuta, sumatzen da poltsa, kubo, sarrera kontrolerako txartelen, eraikuntza eta eraipen hondakinen gunearen, hondakin ez arriskutsuak kudeatzeko gunearen, hondakin ez arriskutsuak isurtzeko eta IKS-eem sistemetara egokitzeke prezio publikoa eta tasa ezartzea komeni dela.



Ondorioz, proposatzen da Urola Erdiko Mankomunitateko estatutuak aldatzea, beren eskumeneko zerbitzuen eta bilketa materialaren gaineko prezio publikoak edo tasak onartu ahal izateko.

Azpeitian, 2023ko abenduaren 13an.

IDAZK.-KONTU HARTZ
Olatz Eizagirre Orbegozo

PROPOSAMENA

LEHENGOA. 2024 urterako zerbitzuak emate- eta baimendutako isurketa jarduerak egiteagatik tasei behin-behineko onspena ematea.

Espedientea jendaurrean erakusgai jartzen da, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenaren 16. artikuluan xedatutakoa betez.

- Espedientea agerian agertzen den lekua:* Kontu hartzaitzako bulegoa.
- Espedienteak aztertzeke epea eta, hala balitz, erreklamazioak aurkezteko:* 30 lan egun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontaturik.
- Erreklamazioak aurkezteko gaituak:* uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 17.1 artikulua adierazten dituenak.
- Aurkezpen lekua:* Mankomunitateko Sarrera Erregistro Nagusia. bulego ordutan 8:30etik 14:30era (Plaza Nagusia 11-1 20730 Azpeitia) Herri Administrazioetako eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren 30/1992 Legearen 38.4 artikulua adierazten dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.
- Errekurtsoa aurkezten zaion organoa:* Batzar Nagusia.

Espedientea jendaurrean dagoen bitartean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betirako onartutzat joko da, akordio berri bat onartu behar gabe aipatutako 16.3 artikuluan ezarrita dagoen bezala

Azpeitian, 2023ko abenduaren 13an.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK
Joanes Amenabar Altuna
(1. ERANSKINA)

ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINAK KUDEATZEKO GUNEA/ Zona de gestión de Residuos de Construcción y Demolición:

Hondakin mota/ Tipo de residuo	LER kodea/Código LER	Tarifa €/TN*
Hormigoia/ Hormigón	17 01 01	16
Adreiluak / Ladrillos	17 01 02	21
Teilak eta Material Zeramikoak / Tejas y material cerámico	17 01 03	21
Hormigoia, adreiluak, teilak eta material zeramikoak	17 01 07	21



dituzten nahasketak/ Mezclas de Hoirmigón, ladrillos, tejas y material cerámico		
Egurra /madera	17 02 01	26
Plastikoa / Plástico	17 02 03	62
Metalak nahastuta / Mezcla de Metales	17 04 07	0
Eraikuntza eta Eraispén hondakinak nahasian / Mezcla de Residuos de Construcción y Demolición	17 09 04	47-68**
Igeltutik abiatutako materialak/ Material a partir de yeso	17 08 02	104
Birziklatutako materialak / Material reciclado	Kodea / Código	Tarifa €/TN*
Hormigoi birziklatua / Hormigon reciclado	AB-H	5
Zeramika materiala birziklatua / Material cerámico reciclado	AB-M	2

HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK KUDEATZEKO GUNEA / Zona de gestión de residuos no peligrosos

Hondakin mota /Tipo de Residuo	LER kodea / Código LER	Tarifa €/TN*
Paper eta Kartoizko ontziak / Envases de papel y cartón	15 01 01	0
Plastikozko ontziak / Envases de Plástico	15 01 02	62
Egurrezko ontziak / Envases de madera	15 01 03	26
Metalezko ontziak / Envases de Metal	15 01 04	0
Beirazko ontziak / Envases de vidrio	15 01 07	73
Gurpilak / Neumáticos	16 01 03	3€/Unid.***
Paper eta Kartoia /Papel y Cartón	19 12 01	0
Burdin Metalak / Metales Férricos	19 12 02	0
Burdinazkoak ez diren Metalak / Metales no Férricos	19 12 03	0
Plastiko eta Kautxua / Plastico y caucho	19 12 04	62
Beira / Vidrio	19 12 05	73
Egurra / Madera	19 12 07	26
Ehunak / Textil	19 12 08	37
Paper eta Kartoia / Papel y cartón	20 01 01	-
Beira / Vidrio	20 01 02	-
Olio eta Koipe jangarriak / Aceites y grasas comestibles	20 01 25	-
Egurra / Madera	20 01 38	-
Plastikoak / Plasticos	20 01 39	-
Metalak /Metales	20 01 40	-
Tamaina haundikoak / Voluminosos	20.03.07	208

HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK ISURTZEKO GUNEA/ Zona de vertido de residuos no peligrosos

Hondakin mota/ Tipo de Residuo	LER kodea/Código LER	Tarifa €/TN*
Mineralak(Adib.:ondarra eta harriak)**** / Minerales (por ejemplo, arena y rocas)****	19 12 12	37



Eskorien tratamenduko hondakinak / Residuos de tratamiento de escorias	10 02 01	36
Tratatu gabeko eskoriak / Escorias no tratadas	10 02 02	36
Labeko eskoriak / Escorias de horno	10 09 03	36
100905 ez diren galdaketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak / Machos y moldes de fundición sin fundición distintos de 100905	10 09 06	36
100907 ez diren galdaketa duten galdaketako arrak eta moldeak/ Machos y moldes de fundición con fundición distinta de 100907	10 09 08	36
100909 ez diren gas-efluenteetatik datozen partikulak / Partículas procedentes de efluentes gaseosos distintos de 100909	10 09 10	37
Labeko eskoriak / Escorias de horno	10 10 03	36
101005 ez diren galdaketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak / Machos y Moldes de fundición sin fundición distintos de 101005	10 10 06	36
101007 ez diren galdaketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak /Machos y moldes de fundición sin fundición distintos de 101007	10 10 08	36
Zeramika, adreilu, teila eta eraikuntzako materialen hondakinak (egosketa-prozesuaren ondoren) / Residuos de cerámica, ladrillos, tejas y materiales de construcción (tras el proceso de cocción)	10 12 08	23
Hormigoi-hondakinak eta hormigoi lohiak/ Residuos de hormigón y lodos de hormigón	10 13 14	23
170503 kodean zehaztutakoak ez diren lurrak eta harriak/ Tierras y piedras distintas de las especificadas en el código 170503	17 05 04	35
Hondakinen tratamendu mekanikoaren hondakinak - Mineralak (hareak eta harriak) / Residuos del tratamiento mecánico de residuos – Minerales (arenas y rocas)	19 12 09	37
Parke eta lorategietako hondakinak - lurrak eta harriak/ Residuos de parques y jardines - tierras y piedras	20 02 02	35

* Prezioak 10 BEZa gehitu gabe

** Balioztagarriak diren material arrastoak ageri direnean Eraikuntza eta Eraispén Hondakinetan 45 €/Tn,

** Eraikuntza eta Eraispén Hondakinak beste materialekin nahastuta (plastikoa, egurra, igeltsua...)

* En el precio no se incluye el 10% de IVA

** Cuando hay rastros de materiales válidos en residuos de construcción y demolición 45 €/Tn

**Residuos de construcción y demolición mezclados con otros materiales (plástico, madera, yeso ...) 65 €/Tn



65 €/Tn

*** Gupil berezietan 0,5 €/kg kobratuko da.

**** Eraikuntza eta Eraispén Hondakinak kudeatzeko guneak sortutakoak

Fakturazio minimoa sarrera bakoitzeko 10 €

*** Los neumáticos especiales se cobran 0,5 €/ kg

**** Generados por el Centro de Gestión de Residuos de Construcción y Demolición

Facturación mínima por cada entrada 10 €

Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:

Alde: % 82,32

Aizarnazabalgo ordezkariak (%2,38): M^a Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Unai Alberdi Arakistain J. (%0,79), Ana Isabel Lizarralde Ibar A. (% 0,79)

Azkoitiko ordezkaria (%23,82): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 14): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%0,54): Jose Miguel Mendizabal Arnaez J. (%0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi A. (% 58).

Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

Kontra: % 00,00

Abstentzioa: % 11,90

Azkoitiko ordezkaria (%11,90): Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90)

Bertaratutakoek, gehiengoz, honakoa onartu dute:

LEHENGOA. 2024 urterako zerbitzuak emate- eta baimendutako isurketa jarduerak egiteagatik tasei behin-behineko onospena ematea.

Espedientea jendaurrean erakusgai jartzen da, uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituenaren 16. artikuluan xedatutakoa betez.

a) *Espedientea agerian agertzen den lekua:* Kontu hartzailetzako bulegoa.



- b) *Espedienteak aztertzeko epea eta, hala balitz, erreklamazioak aurkezteko*: 30 lan egun, iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen den biharamunetik kontaturik.
- c) *Erreklamazioak aurkezteko gaituak*: uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauko 17.1 artikulua adierazten dituenak.
- d) *Aurkezpen lekua*: Mankomunitateko Sarrera Erregistro Nagusia. bulego ordutan 8:30etik 14:30era (Plaza Nagusia 11-1 20730 Azpeitia) Herri Administrazioetako eta Administrazio Prozedura Erkidegoaren 30/1992 Legearen 38.4 artikulua adierazten dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.
- e) *Errekurtsoa aurkezten zaion organoa*: Batzar Nagusia.

Espediente jendaurrean dagoen bitartean erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, behin betirako onartutzat joko da, akordio berri bat onartu behar gabe aipatutako 16.3 artikuluan ezarrita dagoen bezala

(1. ERANSKINA)

ERAIKUNTZA ETA ERAISPEN HONDAKINAK KUDEATZEKO GUNEA / Zona de gestión de Residuos de Construcción y Demolición:

Hondakin mota/ Tipo de residuo	LER kodea/Código LER	Tarifa €/TN*
Hormigoia/ Hormigón	17 01 01	16
Adreiluak / Ladrillos	17 01 02	21
Teilak eta Material Zeramikoak / Tejas y material cerámico	17 01 03	21
Hormigoia, adreiluak, teilak eta material zeramikoak dituzten nahasketak/ Mezclas de Hoirmigón, ladrillos, tejas y material cerámico	17 01 07	21
Egurra /madera	17 02 01	26
Plastikoa / Plástico	17 02 03	62
Metalak nahastuta / Mezcla de Metales	17 04 07	0
Eraikuntza eta Eraispén hondakinak nahasian / Mezcla de Residuos de Construcción y Demolición	17 09 04	47-68**
Igeltsutik abiatutako materialak/ Material a partir de yeso	17 08 02	104
Birziklatutako materialak / Material reciclado	Kodea / Código	Tarifa €/TN*
Hormigoi birziklatua / Hormigon reciclado	AB-H	5
Zeramika materiala birziklatua / Material cerámico reciclado	AB-M	2

HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK KUDEATZEKO GUNEA / Zona de gestión de residuos no peligrosos

Hondakin mota /Tipo de Residuo	LER kodea / Código LER	Tarifa €/TN*
Paper eta Kartoizko ontziak / Envases de papel y cartón	15 01 01	0
Plastikozko ontziak / Envases de Plástico	15 01 02	62



Egurrezko ontziak / Envases de madera	15 01 03	26
Metalezko ontziak / Envases de Metal	15 01 04	0
Beirazko ontziak / Envases de vidrio	15 01 07	73
Gurpilak / Neumáticos	16 01 03	3€/Unid.***
Paper eta Kartoia /Papel y Cartón	19 12 01	0
Burdin Metalak / Metales Férricos	19 12 02	0
Burdinazkoak ez diren Metalak / Metales no Férricos	19 12 03	0
Plastiko eta Kautxua / Plastico y caucho	19 12 04	62
Beira / Vidrio	19 12 05	73
Egurra / Madera	19 12 07	26
Ehunak / Textil	19 12 08	37
Paper eta Kartoia / Papel y cartón	20 01 01	-
Beira / Vidrio	20 01 02	-
Olio eta Koipe jangarriak / Aceites y grasas comestibles	20 01 25	-
Egurra / Madera	20 01 38	-
Plastikoak / Plasticos	20 01 39	-
Metalak /Metales	20 01 40	-
Tamaina haundikoak / Voluminosos	20.03.07	208

HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK ISURTZEKO GUNEA/ Zona de vertido de residuos no peligrosos

Hondakin mota/ Tipo de Residuo	LER kodea/Código LER	Tarifa €/TN*
Mineralak(Adib.:ondarra eta harriak)**** / Minerales (por ejemplo, arena y rocas)****	19 12 12	37
Eskorien tratamenduko hondakinak / Residuos de tratamiento de escorias	10 02 01	36
Tratatu gabeko eskoriak / Escorias no tratadas	10 02 02	36
Labeko eskoriak / Escorias de horno	10 09 03	36
100905 ez diren galdaketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak / Machos y moldes de fundición sin fundición distintos de 100905	10 09 06	36
100907 ez diren galdaketa duten galdaketako arrak eta moldeak/ Machos y moldes de fundición con fundición distinta de 100907	10 09 08	36
100909 ez diren gas-efluenteetatik datozen partikulak / Partículas procedentes de efluentes gaseosos distintos de 100909	10 09 10	37
Labeko eskoriak / Escorias de horno	10 10 03	36
101005 ez diren galdaketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak / Machos y Moldes de fundición sin fundición distintos de 101005	10 10 06	36
101007 ez diren galdaketa gabeko galdaketako arrak eta moldeak/Machos y moldes de fundición sin fundición distintos de 101007	10 10 08	36
Zeramika, adreilu, teila eta eraikuntzako materialen	10 12 08	23



hondakinak (egoketa-prozesuaren ondoren) / Residuos de cerámica, ladrillos, tejas y materiales de construcción (tras el proceso de cocción)		
Hormigoi-hondakinak eta hormigoi lohiak/ Residuos de hormigón y lodos de hormigón	10 13 14	23
170503 kodean zehaztutakoak ez diren lurrak eta harriak/ Tierras y piedras distintas de las especificadas en el código 170503	17 05 04	35
Hondakinen tratamendu mekanikoaren hondakinak - Mineralak (hareak eta harriak) / Residuos del tratamiento mecánico de residuos – Minerales (arenas y rocas)	19 12 09	37
Parke eta lorategietako hondakinak - lurrak eta harriak/ Residuos de parques y jardines - tierras y piedras	20 02 02	35

<p>* Prezioak 10 BEZa gehitu gabe</p> <p>** Balioztagarriak diren material arrastoak ageri direnean Eraikuntza eta Eraispén Hondakinetan 45 €/Tn,</p> <p>** Eraikuntza eta Eraispén Hondakinak beste materialekin nahastuta (plastikoa, egurra, igeltsua...) 65 €/Tn</p> <p>*** Gorpil berezietan 0,5 €/kg kobratuko da.</p> <p>**** Eraikuntza eta Eraispén Hondakinak kudeatzeko guneak sortutakoak</p> <p>Fakturazio minimoa sarrera bakoitzeko 10 €</p>	<p>* En el precio no se incluye el 10% de IVA</p> <p>** Cuando hay rastros de materiales válidos en residuos de construcción y demolición 45 €/Tn</p> <p>**Residuos de construcción y demolición mezclados con otros materiales (plástico, madera, yeso ...) 65 €/Tn</p> <p>***Los neumáticos especiales se cobran 0,5 €/ kg</p> <p>****Generados por el Centro de Gestión de Residuos de Construcción y Demolición</p> <p>Facturación mínima por cada entrada 10 €</p>
---	---

4. RPT eta plantilla organikoa onartzea 2024. urterako.

Urola Erdiko Mankomunitatearen proposamena, 2024ko lanpostuen zerrenda eta pertsonalaren plantilla onestekoa.

AURREKARIAK

2023ko lanpostuen zerrenda eta langileriaren plantilla aurrekontuarekin batera onesteko betebeharra dago.

Gaia onartzea premiazkotzat jotzen da, 2023ko Aurrekontu Orokorra gai zerrendan dagoelako eta gai horri hasierako onespena eman diolako Batzar Nagusiak; aurrekontu proiektuaren 1. Kapitulua garatzen duen gaia da.

Aurrekontu Orokorra eta plantilla organikoa aldi berean onartu behar dira. Izan ere, Toki- Araubideari buruzko indarrean dauden Lege-Xedapenak jasotzen dituen apirilaren 18ko 781/86 Errege-Dekretu



Legegilearen 126.1 artikulua honela dio: **1. Las plantillas, que deberán comprender todos los puestos de trabajo debidamente clasificados reservados a funcionarios, personal laboral y eventual, se aprobarán anualmente con ocasión de la aprobación del Presupuesto y habrán de responder a los principios enunciados en el art. 90.1 de la Ley 7/85 de 2 de abril...**"

Aurkeztu den eta Batzar Nagusiak hasieraz onartu duen **2024ko Aurrekontu Orokorraren proiektuaren espedientean plantilla organikoari buruzko desglose ekonomikoa eta plantillaren eranskina jasota daude. IKUSITA** Urola Erdiko Mankomunitateko Idazkari Kontu-hartzaileak 2023ko abenduaren 13an egindako lege txostena. Txosten hau espedientean dago

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

Lehengoa.- Eskumena

Estatutuen 11. atalari xedatutakoari jarraituz, *"Batzar Nagusiak honako eskumen hauek izango ditu: l) Langileen eta lanpostuen zerrenda onartzeko eskumena".*

Estatutuen 13. atalari xedatutakoari jarraituz, *"Mankomunitateko Lehendakariaren eginkizun dira:5. Langileak kontratatzeako oinarriak eta langileen izendapenak onartzea".*

Hortaz, erabakia hartzeko eskumena du Batzar Nagusiak, gehiengo soilez, Estatutuen 11.2 atalari xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena.- Araubidea

a) Tokiko araubidea

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretuaren 126. artikulua eta hurrengoak.

Urola Erdiko Mankomunitatearen Estatutuak (GAOen: 2011/06/09an argitaratutakoak, 109. zk.an.

b) Funtzio publikoaren araudia

Langile Publikoen Estatutu Orokorrari buruzko Legearen Testu Bateratua, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzazko Errege Dekretua: 74 atala

Abenduaren 1eko 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoarena: 45 atala

Abuztuaren 2ko 30/1984 Legearen 15. atala

c) Aurrekontuari buruzko legeria

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege Dekretua, aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriei buruzkoa.

PROPOSAMENA

LEHENGOA.- Urola Erdiko Mankomunitateko Pertsonalaren 2024ko ekitaldiko Plantilla Organikoa; funtzionarioei, lan-kontratuko langileei eta behin behineko langileei erreserbatutako plaza guztiak hartzen dituen eta Lanpostuen Zerrenda onartzea, ERANSKINEan datorren ereduaren arabera eta espedientea informazio publikoan jartzea, hamabost lanegunetan, apirilaren 18ko 781/86 Errege-Dekretu Legegilearen 126.4 artikuluan eta Euskal Funtzio Publikoaren 16., 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren arabera, interesatuek aztertu eta erreklamazio edo iradokizunak aurkez ditzaten.



Inolako erreklamazio edo iradokizunik ez balitz aurkeztuko, behin-betiko izaeraz onartutzat hartzea.

BIGARRENA.- Erabaki hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Azpeitian, 2023ko abenduaren 14an.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK
Joanes Amenabar Altuna

ERANSKINA-
PLANTILA ORGANIKOA 2024/PLANTILLA ÓRGANICA 2024

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAKO GORDETAKO LANPOSTUAK/PLAZAS RESERVADAS A FUNCIONARIOS/AS DE CARRERA

<u>Lanpostuaren izena/Denominación de la Plaza</u>	<u>Lanpostu kopurua/Nº de plazas</u>	<u>6/89 Legea 43. art. Taldea/Grupo Art.43 Ley 6/89</u>	<u>Egoera/Situación</u>
Idazkari-kontuhartzailea/ Secretario- Interventor	1	A1	Hutsik/Vacante
Administrazio Orokorreko Teknikaria/Técnico de Administración General	1	A1	Hutsik/Vacante
Ingurumen zerbitzuko Arduraduna/Responsable del Servicio de Medio Ambiente	1	A1	Hutsik/Vacante
Administrazio Orokorreko Administraria/Administrativo de Administración General	1	C1	Hutsik/Vacante
Hezitzailea/Educador/a	4	C1	Hutsik/Vacante
Gidari-Biltzailea/Conductor- Recogedor	1	E	Hutsik/Vacante

PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK/PLAZAS RESERVADAS A PERSONAL LABORAL FIJO

<u>Lanpostuaren izena/Denominación de la Plaza</u>	<u>Lanpostu kopurua/Nº de plazas</u>	<u>Sailkapen taldea (parekatua)/Grupo (asimilado)</u>	<u>Egoera/Situación</u>
Garbiguneko	1	C2	Hutsik/Vacante



arduraduna/Responsable Garbigune			
Koordinatzailea/Coordinador	1	C2	Hutsik/Vacante
Gidari-Biltzailea/Conductor- Recogedor	11	C2	Hutsik/Vacante

ESKUA9ff376e-737c-41c2-af52-128266f6faf01



LANPOSTUEN ZERRENDA 2024/RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO 2024

KARRERAKO FUNTZIONARIOENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK/PUESTOS RESERVADOS A FUNCIONARIOS DE CARRERA

Izena / Denominación	Dotazio zkia. / Nº Dotac.	Hornitzeko era / Forma Prov.	DO/CD	BO/CE	Dedikazioa/ Dedicación/ Penosidad	Dedikazioa %/ Dedicación	Arloa / Dependencia	Lanpostua betetzeko baldintzak / Requisitos para su desempeño						
								Atxikipena/Adscripción				Hizkuntza Eskakizuna/Perfil Ling.		Titulazioa / Titulac.
								Taldea / Grupo	Eskala/ Escala	Azpieskala / Subescala	Mot a / Tipo	Koef.	Derrigort. data / Fecha preceptiv.	
Idazkari-Kontuhartzailea/Secretario-Interventor	1	Lehiaketa Concurso	26	27.3360,36	6,11	100	Idazkari-Kontuhartzailea/Secretaría-Intervención	A1/A2	GN/HE	Idazkari-Kontuhartzailea/Secretaría-Intervención	3	4	2014.04.10	Lizentziatura edo graduko unibertsitate-titulua edo baliokidea / Licenciatura o título universitario de grado o equivalente
Administrazio Orokorreko Teknikaria/Técnica de Administración General	1	Lehiaketa Concurso	25	21.997,52		100	Idazkari-Kontuhartzailea/Secretaría-Intervención	A1	AO / AG	T/T	GMT /TS	3	2015.06.01	Lizentziatura edo graduko unibertsitate-titulua edo baliokidea / Licenciatura o título universitario de grado o equivalente
Administrazio Orokorreko Administraria/Administrativo/a de Administración General	1	Lehiaketa Concurso	17	16.593,38		100	Idazkari-Kontuhartzailea/Secretaría-Intervención	C1	AO / AG	A/A	A/A	2	2015.06.01	Batxilergo titulua edo titulu teknikoa edo baliokidea/Título de Bachiller o técnico o equivalente

ESKUa9ff376e-737c-41c2-af52-12826f6faf01



Ingurumen Zerbitzuko Arduraduna /Responsable del Servicio de Medio Ambiente	1	Lehiaketa Concurso	25	22.870,73		100	Ingurumen Zerbitzua/Servicio de Medio Ambiente	A1	AB / AE	T/T	GMT /TS	4	2015.06.01	Lizentziatura edo graduko unibertsitate -titulua edo baliokidea / Licenciatura o título universitario de grado o equivalente.
Hezitzailea / Educador /a	4	Lehiaketa Concurso	17	14.661,10		100	Ingurumen Zerbitzua/Servicio de Medio Ambiente	C1	AB/AE	A/A	A/A	3	2021.05.27	Batxilergo titulua edo titulu teknikoa edo baliokidea/Título de Bachiller o técnico o equivalente
Gidari biltzailea /Conductor Recogedor	1	Lehiaketa Concurso	16	19.822,88		100	Bilketa/Recogida	E	AB / AE	Ingurumena/ Medio Ambiente		1	2015.06.01	Eskolatzte ziurtagiria edo baliokidea / Certificado escolaridad o equivalente

BESTELAKOAK / OTROS:

Gidari-Biltzailea/Conductor-Recogedor:

DERRIGORREZKOAK / OBLIGATORIO

Gidabaimena C motatakoa / Permiso de conducir tipo C

ESKUa9ff376e-737c-41c2-af52-12826f6faf01



PERTSONAL LABORAL FINKOARENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK/PUESTOS DE TRABAJO RESERVADOS PARA PERSONAL LABORAL FIJO

Izena / Denominación	Dotazio zkia. / Nº Dotac.	Hornitzeko era / Forma Prov.	DO/CD	BO/CE	Dedikazioa/ Dedicación/ Penosidad	Dedikazioa %/ Dedicación	Arloa / Dependencia	Lanpostua betetzeko baldintzak / Requisitos para su desempeño						
II.- Kontratua burutzeko epea 10 urtekoa zen, 2009ko urtarrilaren 1etik aurrera, beraz 2019ko abenduaren 31ean amaitu zen. Kontratua 2018ko urriaren 25ean egindako Osoko Bilkuraren erabakiaren bitartez, urtebetez luzatu zen, 2019ko abenduaren 31 arte. Kontratuaren gehieneko iraupena 25 urtekoa izango da gehienez.

III.- Zerbitzua jasotzen duten herriek, kontratua beste urtebetez luzatzea erabaki dute.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Eskumena

Estatutuen 11. atalak xedatutakoari jarraituz, "Batzar Nagusiak honako eskumen hauek izango ditu: "m) Obrak, zerbitzuak, hornidurak eta sektore publikoko kontratuen legean araututakoak kontratatzeko eskumena, bai eta jarduera hobeto kudeatzeko kontratu pribatuak egiteko eskumena ere, aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera".

Modu berean, kontratua luzatzeko eskumena du Batzar Nagusiak.

2. Araubidea

2017ko azaroak 8ko 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen lehen xedapen iragankorrak, bere 2. Atalean honela dio:



*2. Lege hau indarrean jarri aurretik esleitutako administrazio-kontratuak, ondorioei, betetzeari eta azkentzeari dagokienez, aurreko araudiaren arabera arautuko dira, baita horien aldaketa, iraupena eta **luzapenen araubidea** ere.*

Azaroaren 14ko 3/2011 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duena: Lehen Xedapen Iragankorrak.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 23. 29 artikulua.

Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen Zazpigarren Xedapen Iraunkorra.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legearen Lehen Xedapen Iragankorren arabera, aplikagarria da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea, eta *Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen Zazpigarren Xedapen Iraunkorra aplikatuz, 2/2011 Legeak jasotzen duen kontratuen luzapenei buruzko araubide berria ez da aplikatuko orain proposatzen den kontratuaren aldaketari.*

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 23, atalak honakoa dio:

23. artikulua. Kontratuen iraupen-epea.

1. Zenbait kontratari aplika dakizkiekeen arau bereziei kalterik egin gabe, sektore publikoko kontratuen iraupena ezartzeko, kontuan hartu beharko dira prestazioen izaera, prestazioen finantzaketaren ezaugarriak eta prestazioen gauzatzea aldian-aldian konkurrentziaren mende jartzeko beharra.

2. Kontratuak luzapen bat edo gehiago aurreikusi ahal izango ditu, baldin eta luzapen horien ezaugarriak ezin badira aldatu luzapenek dirauten bitartean, eta esleipenerako lehia kontratuaren gehieneko iraupena kontuan hartuta egin bada, luzapen-aldiak barne.

Kontratazio-organoak erabakiko du luzapena, eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, salbu eta kontratuak berariaz kontrakoa aurreikusten badu, eta ezin izango da egin alderdien isilbidezko adostasunaren bidez.

3. 122.3 artikuluan zehaztutako kontratu txikiek ezin izango dute urtebete baino gehiago iraun, eta ezin izango dira luzatu.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 29 atalak honakoa dio:

29. artikulua. Kontratuak Kontuen Auzitegira bidaltzea.

1. Kontratua formalizatu eta hurrengo hiru hilabeteen barruan, fiskalizazio-eginkizuna egikartzeko, kontratua formalizatu duen dokumentuaren kopia ziurtatua bidali beharko zaio Kontuen Auzitegiari edo autonomia-erkidegoko kanpoko fiskalizazio-organoari, haren ondoriozko espedientearen laburpenarekin batera, baldin eta kontratuaren zenbatekoa 600.000 eurotik gorakoa bada, obrak, herri-lanen emakidak, zerbitzu publikoen kudeaketa eta abar direla eta. Sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzaz; 450.000 eurokoa, horniduren kasuan, eta 150.000 eurokoa, zerbitzu-kontratuaren eta administrazio-kontratuaren.

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



2. **Era berean, Kontu Auzitegiari** edo autonomia-erkidegoko kanpoko fiskalizazio-organoari **jakinaraziko zaizkio adierazitako kontratuen aldaketak, luzapenak** edo epe-aldaketak, prezio-aldaketak eta azken zenbatekoa, deuseztasuna eta azkentze normala edo anormala.

3. Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoak ez die kalterik egingo Kontu Auzitegiak edo, hala denean, autonomia-erkidegoetako kanpoko fiskalizazio-organoek edozein izaera eta zenbateko kontratuei buruz egoki irizitako datu, agiri eta aurrekari guztiak erreklamatzeko dituzten ahalmenei.

4. Kontratazio-organoak egingo ditu artikuluko honetan aipatzen diren komunikazioak, Estatuko Administrazio Orokorraren eta haren mendeko sektore publikoko ente, organismo eta erakundeen esparruan.

PROPOSATZEN DUT:

LEHENA.- Urola Erdiko Mankomunitateko udalerrietako hiri izaerako hondakinak bildu eta garraiatzeko Mankomunitatea eta "Fomento de Construcciones y Contratas S.A." eta "Serbitzu Elkarte S.L." baltzuek osaturiko aldi baterako enpresen batasunaren artean indarrean dagoen kontratua urte betez luzatzea

BIGARRENA.- Kontratua 2024ko abenduaren 31ean amaituko da, beste luzapenik ez bada erabakitzen, eta oraingoak dituen baldintza berdinetan emango da.

HIRUGARRENA.- Luzapenaren erabakiaren kopia ziurtatua Kontu Auzitegiari bidaltzea.

LAUGARRENA.- Luzapenaren erabakia Fomento de Construcciones y Contratas S.A." eta "Serbitzu Elkarte S.L." baltzuek osaturiko aldi baterako enpresen batasunari jakinaraztea.

BOSGARRENA.- Kontratugilearen profilean argitaratzea.

Erabaki hau berehala exekutiboa da.

Azpeitia, 2023ko azaroaren 21a.

MANKOMUNITATEAREN PRESIDENTEA
Joanes Amenabar Altuna

Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:

Alde: % 82,32

Aizarnazabalgo ordezkariak (%2,38): M^a Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Unai Alberdi Arakistain J. (%0,79), Ana Isabel Lizarralde Ibar A. (% 0,79)

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



Azkoitiko ordezkaria (%23,82): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 14): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%0,54): Jose Miguel Mendizabal Arnaez J. (%0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi A. (% 58).

Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

Kontra: % 00,00

Abstentzioa: % 11,90

Azkoitiko ordezkaria (%11,90): Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90)

Bertaratutakoek, gehiengoz, honakoa onartu dute:

LEHENA.- Urola Erdiko Mankomunitateko udalerrietako hiri izaerako hondakinak bildu eta garraiatzeko Mankomunitatea eta "Fomento de Construcciones y Contratas S.A." eta "Serbitzu Elkarte S.L." baltzuek osaturiko aldi baterako enpresen batasunaren artean indarrean dagoen kontratua urte betez luzatzea

BIGARRENA.- Kontratua 2024ko abenduaren 31ean amaituko da, beste luzapenik ez bada erabakitzen, eta oraingoak dituen baldintza berdinetan emango da.

HIRUGARRENA.- Luzapenaren erabakiaren kopia ziurtatua Kontu Auzitegiari bidaltzea.

LAUGARRENA.- Luzapenaren erabakia Fomento de Construcciones y Contratas S.A." eta "Serbitzu Elkarte S.L." baltzuek osaturiko aldi baterako enpresen batasunari jakinaraztea.

BOSGARRENA.- Kontratugilearen profilean argitaratzea.

7. Pauso berriak-ekin lankidetza hitzarmena onestea.

2020ko abenduaren 19ko Batzar Orokorrean, Urola Erdiko Mankomunitateak, «Gureak Lanean», «G.Inklusio Fundazioa» eta «Atzegi» entitateak proposatutako, "Pauso Berriak" Programaren esparruko plaza okupazional bati dagokionez, entitateen arteko lankidetza eta koordinazio-esparrua ezartzeko helburuarekin lankidetza hitzarmena onartu zen.



Hitzarmenaren laugarren estipulazioaren arabera, Lankidetza Hitzarmenaren iraupena urtebetez luzatzea proposatzen da.

Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:

Alde: % 94,22

Aizarnazabalgo ordezkariak (%2,38): M^a Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Unai Alberdi Arakistain J. (%0,79), Ana Isabel Lizarralde Ibar A. (% 0,79)

Azkoitiko ordezkaria (%35,72): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91), Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 14): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%0,54): Jose Miguel Mendizabal Arnaez J. (%0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi A. (% 58).

Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

Kontra: % 00,00

Abstentzioa: % 00,00

Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:

LEHENGOA: 2020ko abenduaren 19ko Batzar Orokorrean, Urola Erdiko Mankomunitateak, «Gureak Lanean», «G.Inklusio Fundazioa» eta «Atzegi» entitateak proposatutako, “Pauso Berriak” Programaren esparruko plaza okupazional bati dagokionez, entitateen arteko lankidetza eta koordinazio-esparrua ezartzeko helburuarekin lankidetza hitzarmena urtebetez luzatzea onartzea.

8. Urola Erdiko Mankomunitatearen 2024rako diru laguntzen plan estrategikoa hasieraz onestea.

Urola Erdiko Mankomunitatearen Lehendakariaren proposamena, 2024rako Urola Erdiko Mankomunitatearen Diru laguntzen plan estrategikoa hasieraz onartzea.



Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzen gastu publikoaren kudeaketan eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko tresna gisa, Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat egiteko beharra ezartzen du, lortu beharreko helburuak aurreikusitako kostuekin erlazionatu ahal izateko.

Horrekin bat etorriz, Urola Erdiko Mankomunitatearen 2022rako Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egiten da, herritarren beharrei erantzutea helburu duena, behar gehien duten sektoreei modu eraginkorrean lagunduz.

Administrazioaren ikuspegitik, dirulaguntzak interes orokorrekotzat jotzen diren gizarte-ekimen jakin batzuk sustatzeko teknika bat dira eta Administrazio publikoaren eta herritarren arteko lankidetzaz bultzatzeko modu bat, interes publikoko jardueren kudeaketan.

Kontuan hartuta dirulaguntzak gastu publikoaren modalitate garrantzitsua direla, beharrezkoa da haien prozedura eta funtsezko alderdi nagusien arauketa ezartzea.

Horrela, 2024 Dirulaguntzen Plan Estrategikoa beharrezko osagarria izango da diru-laguntzak emateko.

ARAU ESPARRUA

Diru-laguntzen plan estrategikoa egitea arautzen duen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikulua eta 13. eta 17. Xedapen gehigarriak.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Diru-laguntzen Erregelamendu Orokorraren 10. artikulutik 15. artikulura.
- Diru-laguntzak arautzen dituen mankomunitatearen ordenantza orokorra.

IZAERA JURIDIKOA

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, "herri-administrazioetako organoek edo diru-laguntzak ezartzea proposatzen duen edozein erakundek, alde aurretik, diru-laguntzen plan estrategiko batean zehaztu beharko dituzte haren aplikazioaren bidez lortu nahi diren xedeak eta ondorioak, hura lortzeko behar den epea, aurreikus daitezkeen kostuak eta finantzaketa-iturriak, betiere aurrekontu egonkortasunari buruzko helburuak betetzearen menpe.

Dirulaguntzen plan estrategikoa politika publikoak planifikatzeko tresna programatiko bat da, arau-izaerarik gabea, eta haren edukiak ez du ez eskubiderik ez betebeharririk sortzen; haren eraginkortasuna dirulaguntza lerroak abian jartzearen baldintzapean geratzen da, aurrekontuaren baliabideen arabera.

PLANAREN EDUKIA



Urola Erdiko Mankomunitatearen 2024 aldirako Plan Estrategikoa I. eranskinean jasota dago, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 12. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta honako hau jasotzen du:

1. Planaren indarraldian erakunde-ekintzarekin lortu nahi den eragina eta inpaktua deskribatzen duten **helburu estrategikoak**.

2. Helburu estrategiko bakoitzean zehazten diren diru-laguntza **lerro bakoitzak** honako hauek jasotzen ditu:

- Eragindako eskumen arloa eta laguntzen xede diren sektoreak.
- Hura aplikatzearekin lortu nahi diren helburuak eta ondorioak.
- Hori lortzeko behar den epea.
- Gauzatzeko kostuen aurreikuspena eta finantzaketa-iturriak.
- Ekintza-plana, planean txertatutako diru-laguntzen lerroa edo lerroak abian jartzeko mekanismoak zehazten dituenak.
- Planaren helburuarekin zerikusia duten adierazleak, bakoitzaren egoera eta helburuak betetzean lortutako aurrerapenak ezagutu ahal izateko.

FINANTZAKETA

Plan Estrategiko honetan aurreikusitako dirulaguntzak benetan ezarri ahal izateko, urte bakoitzeko udal-aurrekontuan dagozkion kredituak sartu beharko dira, eta dirulaguntzen deialdia arautuko duten oinarriak onartu beharko dira, eta salbuespenez, zuzeneko emakidaz.

Diru-laguntza emateko, ezinbestekoa da aurrekontu-egonkortasunaren, finantza-iraunkortasunaren eta gastu-arauaren printzipioak betetzea.

ONARTZEKO ESKUMENA DUEN ORGANOA

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 8. artikulua Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat onartzeko betebeharra ezartzen du, baina ez du ezartzen zein den horretarako organo eskuduna. Bestalde, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (TAOAL) ez du ezartzen aipatzen diren eskumenak udal organoen artean banatzeko inongo araurik. Horren ondorioz, ez dago argi zein den onartzeko organo eskuduna.

Lege hutsune bat dago Dirulaguntzen Plan Estrategikoarentzat. Ezin da parekatu aurrekonturako xedatuta dagoenarekin, Plan Estrategikoa, ez baita kudeaketa ekonomikorako tresna bat, plangintzakoa baizik. Horren ondorioz, ez da hirugarrenen aldeko betebeharririk edo konpromisorik sortzen; aitzitik, mankomunitateak jarraitu beharreko ildo batzuk baino ez dira ezartzen, eta ez dira lotesleak izango.

Beraz, badirudi egokiena dela Lehendakariari esleitzea hura onartzeko eskumena, TAOAL Legearen 21.1 s) artikuluan oinarrituta; izan ere, egiazki, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrak udalei ezartzen die Dirulaguntzen Plan Estrategiko bat onartzea, baina ez dio eskumen espresoa ematen ezein organori, eta egoera hori Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 21.1 s) artikuluan jasotako egitatezko kasuan sartzen da.



AURKEZTUTAKO PLAN ESTRATEGIKOAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAK ONARTZEKO PROZEDURA.

Diru-laguntzak emateko prozedura dirulaguntzei buruzko Legearen 22. artikulutik 28. artikulura bitartean arautu da, eta adierazi da prozedura norgehiagokako araubidea izan daitekeela, edo, bestela, zuzeneko emakidari buruzkoa, 22.2 artikuluan aurreikusitako kasuetan.

a. Diru-laguntzak norgehiagokako araubideari jarraikiz emateko deialdia lehendakariari edo Batzar Nagusiari dagokio, gastuaren zenbatekoaren arabera.

b. Zuzeneko diru-laguntza izendunak lankidetzaz hitzarmen bidez formalizatuko dira.

PLANAREN KONTROLA ETA JARRAIPENA

Plan honen kontrola eta jarraipena udal kontu-hartzailezari dagokio, eta indarrean dagoen legerian jasotako baldintzetan egingo da.

INDARRALDIA ETA EGUNERATZEA

Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamenduaren 11.4 artikulua arabera, plan estrategikoei hiru urteko indarraldirako aurreikuspenak izango dituzte, eragindako sektorearen izaera berezia dela eta beste plan estrategiko bat ezartzea komeni denean izan ezik.

Erregelamenduzko aurreikuspen hori kontuan hartuta, eta mankomunitatearen dirulaguntzen jarduerak eragindako sektoreetan izaera berezirik ikusten ez denez, Plana 2022 aldirian egongo da indarrean.

Aurrekoa gorabehera, urtero planaren jarraipena egin beharko da, aurrekontu baliabideak kontuan hartuta, lortu nahi den helburu mailara iristen ez diren edo inbertitutako baliabide mailarako desegokia den dirulaguntzen lerroak aldatu edo ordeztu ahal izan daitezen, eraginkorragoak diren beste batzuekin, edo, hala badagokio, kendu.

Plan honetan aurreikusi gabeko diru-laguntzen lerroen bat sartu nahi duten aurrekontu-aldaketan kasuan, aldeztu aurretik edo aldi berean aldatu beharko da.

Lehendik dagoen diru-laguntza lerro baten barruan zenbatekoak aldatu edo diru-laguntza berriak jartzen diren kasuetan, ez da beharrezkoa izango Plana aldatzea. Horretarako, sail kudeatzailearen txostena beharko da, gastu berria sartzen den dirulaguntza lerroa egokitzen dela egiaztatzeko.

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra arte izango ditu ondorioak.

GARDENTASUNA

Gardentasun-printzipioa betetze aldera, Mankomunitateak lerro estrategiko bakoitzean emandako dirulaguntzak, laguntza-programak eta deialdiak urtero argitaratuko dira Mankomunitatearen webgunean, eta Gardentasunaren Atarian, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 20. Artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, eta erakunde hartzailea, haren zenbatekoa eta xede duen proiektua edo ekintza adierazita.

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



PUBLIZITATEA

Ematen diren diru-laguntzen zenbatekoak, banan-banan hartuta, 3.000 eurotik beherakoak badira, dirulaguntzak web orrian eta Gardentasunaren Atarian argitaratuko dira. Bestela, diru-laguntza emateko ebazpenaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiari luzatzen diot onartzeko honako

PROPOSAMEN HAU:

LEHENGOA. Urola Erdiko Mankomunitatearen Diru laguntzen plan estrategikoa 2024, hasieraz onartzea.

(1. eranskina)

BIGARRENA. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. atalak xedatutakoa betez, espedientea jendaurreko erakustaldian jartzea 30 egunez, interesdunek alegazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Epe hori bukatzen bada erreklamaziorik aurkeztu gabe, erabakia behin betikoz onartutzat joko da eta testu osoa argitaratuko da.

Azpeitian, 2023ko abenduaren 14an.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK
Joanes Amenabar Altuna

Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:

Alde: % 82,32

Aizarnazabalgo ordezkariak (%2,38): M^a Carmen Arregi Agirre A. (%0,80), Unai Alberdi Arakistain J. (%0,79), Ana Isabel Lizarralde Ibar A. (% 0,79)

Azkoitiko ordezkaria (%23,82): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 14): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%0,54): Jose Miguel Mendizabal Arnaez J. (%0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Nekane Zinkunegi A. (% 58).

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

Kontra: % 00,00

Abstentzioa: % 11,90

Azkoitiko ordezkaria (%11,90): Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90)

Bertaratutakoek, gehiengoz, honakoa onartu dute:

LEHENGOA. Urola Erdiko Mankomunitatearen Diru laguntzen plan estrategikoa 2024, hasieraz onartzea.

(1. eranskina)

BIGARRENA. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. atalak xedatutakoa betez, espedientea jendaurreko erakustaldian jartzea 30 egunez, interesdunek alegazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal ditzaten.

Epe hori bukatzen bada erreklamaziorik aurkeztu gabe, erabakia behin betikoz onartutzat joko da eta testu osoa argitaratuko da.

UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO 2024 EKITALDIRAKO DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA	PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES DE LA MANCOMUNIDAD DE UROLA ERDIA 2024
<p data-bbox="416 1272 549 1301" style="text-align: center;">ATARIKOA</p> <p data-bbox="188 1346 778 1765">Oinarrizko izaera duen diru laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 8.1 artikulua honako hau dio: «administrazioko organoek edo diru laguntzak ezartzea proposatzen duten beste guztiek, aldez aurretik, Diru Laguntzen Plan Estrategiko baten zehaztu beharko dituzte horien aplikazioarekin lortu nahi dituzten helburuak eta eraginak, horiek guztiak lortzeko behar den epea, ustez egongo diren kostuak eta finantzazio iturriak. Plana burutzeko ezinbestekoa izango da beti aurrekontuen egonkortasunerako helburuak betetzea».</p> <p data-bbox="188 1809 778 1971">Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko hamahirugarren xedapen gehigarriak ezartzen du legezko arau edo erregelamenduetan aurreikusitako politika publikoei buruzko plan edo programak Diru Laguntzen Plan</p>	<p data-bbox="1018 1272 1182 1301" style="text-align: center;">PREÁMBULO</p> <p data-bbox="804 1346 1398 1765">El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, que tiene carácter básico, establece que «Los órganos de la Administración o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria».</p> <p data-bbox="804 1809 1398 1971">La disposición adicional decimotercera de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, establece que los Planes y Programas relativos a políticas públicas que estén previstas en Normas legales o reglamentarias tendrán la consideración de Planes es-</p>



Estrategikotzat joko direla edo 38/2003 Legeko 8.1 artikuluan aurreikusitako edukia jasoko dutela.

Diru laguntza izendun zuzenak jasoko dute Diru Laguntzen Lege Orokorren Erregelamenduaren 12.2 a) atalak xedatutako eduki murriztua

Legearen printzipioetako bat da gardentasunarena; printzipio horrek, Legean artikulatzen diren tresna anitzekin batera, eraginkortasun- eta eragingarritasun-mailen gehikuntza bat dakar berekin, modu zuzenean ekarri ere, dirulaguntzen gastu publikoaren gestioan.

Alde horretatik esan behar dena da merkatuari eragin liezaiketean distortsioak eta interferentziak kentzeko modua egongo dela diru-laguntzen inguruko informazio gehiago edukiz gero eta, horrezaz gain, Administrazio Publiko guztietako jardueren koherentzia eta osagarritasuna erraztu eta mota guztietako teilakatzeak galaraziko lirateke.

Eraginkortasuna hobetzeko, legerian aginduta dago egin dadila Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat, urte anitzeko izaera duena, diru-laguntzak edo Udalbatzak egiten dituen lankidetzak hitzarmenak sortu aurretik.

Diru-laguntzen plan estrategikoa aurreikuspen bat besterik ez dela kontuan harturik, aldatetarik izan litezke; nolahi ere, aldatetarik horiek egokitu beharra daukate Legea, Ordenantza espezifikoak, une bakoitzean dagoen errealitate sozialera eta, batik bat, dagokion ekitaldiko aurrekontuetara.

Azkenik, aipatu beharra dago Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak behin betiko ezarri zeko, horiei dagozkien kontsignazioak sartu behar direla urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta ezinbestekoa izango dela aurrekontu egonkortasuneko helburuak betetzea.

tratégicos de Subvenciones o recogerán el contenido previsto en el art. 8.1.de la Ley 38/20013.

Las subvenciones nominativas directas recogerán el contenido reducido establecido en el artículo 12.2 a) del Reglamento de la Ley General de Subvenciones.

Uno de los principios que rige la Ley es el de la transparencia que, junto con la gran variedad de instrumentos que se articulan en la Ley, redundan de forma directa en un incremento de los niveles de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público subvencional.

En este sentido, una mayor información acerca de las subvenciones hará posible eliminar las distorsiones e interferencias que pudieran afectar al mercado, además de facilitar la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones Públicas evitando cualquier tipo de solapamiento.

Para mejorar la eficacia, se prevé en la Legislación que se proceda a elaborar un Plan Estratégico de Subvenciones, de carácter plurianual y con carácter previo al nacimiento de las subvenciones o los convenios de colaboración que la corporación pueda celebrar.

Teniendo en cuenta el carácter de previsión del plan estratégico de Subvenciones, pueden producirse cambios, que en cualquier caso deberán ajustarse a la Ley, a la Ordenanza específica, a la realidad social existente en cada momento y fundamentalmente a los presupuestos del correspondiente ejercicio.

Por último, señalar que el establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan requerirá la inclusión de las consignaciones correspondientes en los presupuestos municipales de cada año y quedará supeditado al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.

CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa

Tel: 943857319 | uuee@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Urola Erdiko Mankomunitateak 2024 aldian emango dituen diru-laguntzak Diru Laguntzen Lege Orokorraren, Plan honen, dagozkion hitzarmenen eta diru laguntzak emateko urtero egingo diren deialdien oinarrien arabera emango ditu.

Urola Erdiko Mankomunitatearen diru laguntzak arautzeko ordenantzara ere egokituko dira.

2. artikulua.

Plan honetan aurreikusitako diru laguntzak eraginkorrak izateko, dagozkion kontsignazioak sartu beharko dira urte bakoitzeko aurrekontuetan eta diru laguntzak arautzeko oinarriak onartu.

3. artikulua.

Diru laguntzak egoteko baldintza izango da aurrekontu egonkortasun helburuak betetzea, eta beraz, onartuko diren aurrekontu kontsignazioak eta diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak uneoro helburu horietara egokitu beharko dira.

4. artikulua.

Diru laguntza Plan Estrategiko hau onartzeak ez du inolako eskubiderik sortzen onuradun izan daitezkeenentzako, eta ezingo dute inolako kalte ordainik edo konpentsaziorik eskatu Plana ez bada bere horretan betetzen.

II KAPITULUA: ONURADUNAK

5. artikulua.

Mankomunitateak, deialdi publiko bidez edo lankidetzahitzarmenak eginaz, diru laguntzak emango dizkie pertsonen, elkarteen edo erakunde publiko zein pribatuen hura eratzen duten

Artículo 1.

La concesión de subvenciones por la Mancomunidad de Urola Erdia durante el periodo 2024 se ajustará a la Ley General de Subvenciones, al presente Plan, a los correspondientes convenios y a las Bases de las convocatorias anuales de las subvenciones.

Se ajustará también a la Ordenanza reguladora de las subvenciones de la Mancomunidad de Urola Erdia.

Artículo 2.

El establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan requerirá la inclusión de las consignaciones presupuestarias de cada año y la aprobación de las bases reguladoras de su concesión.

Artículo 3.

El establecimiento de subvenciones queda sujeta al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria, por lo que las consignaciones presupuestarias que se aprueben y las bases reguladoras de su concesión se acomodarán en cada momento a dichos objetivos.

Artículo 4.

La aprobación del presente Plan Estratégico de Subvenciones no supone la generación de derecho alguno en favor de los potenciales beneficiarios, que no podrán exigir indemnización o compensación alguna en caso de que el Plan no se lleve a la práctica en sus propios términos.

CAPÍTULO II: BENEFICIARIOS

Artículo 5.

La Mancomunidad concederá subvenciones, mediante convocatoria pública o a través de la firma de convenios de colaboración, a favor de personas, asociaciones o Entidades públicas o privadas con la finalidad de fomentar el desarrollo local de los municipios que la integran y el bienestar de su ciudadanía dentro del ámbito de la gestión de los servicios públicos de su compe-



udalerrien tokiko garapena eta herritarren ongizatea lortzeko bere eskumeneko zerbitzu publikoen kudeaketaren esparruan.

6. artikulua.

Plan honen printzipio orokorrak honako hauek dira:

—Publizitatea eta lehiakortasun askea aurrez egindako deialdi bidez. Bertan, objektibitatea, gardentasuna, publizitatea, lehiakortasuna eta fondo publikoen banaketan berdintasuna bermatu beharko dira, hori guztiori, emakida zuzenaren kaltetan gabe. Emakida zuzenak, aplikatu dakioken arauan ezarritakoaren arabera, aurrez dagokion aurrekontu kontsignazioa izan beharko du.

—Aurrez deialdian ezarritako irizpide objektiboen arabera egingo da emakida, onuradun izan daitezkeenak irizpide horiek aurrez ezagutzen dituztela bermatzeko

—Eraginkortasuna jarritako helburuak betetzera eta efizientzia baliabide publikoak esleitzerakoan, kantitate eta kalitate aldetik justifikatu beharko delarik.

—Diru laguntza eskatzen duten erakundeen helburuak diruz lagundutako jardueretan berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioetara egokitzen direla kontrolatzea eta aztertzea.

7. artikulua.

Lehendakaritzak du eskumena Diru laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko.

Lehendakaritza eta Batzar Nagusia, laguntzak edo diru laguntzak onartzeko organo eskudunak dira, gastu kopuruaren arabera.

Dirulaguntza programak aurrekontu zuzkidura egokia eta behar bestekoa egotearen menpe daude.

tencia.

Artículo 6

Son principios generales de este Plan los siguientes:

—Publicidad y libre competencia mediante convocatoria previa en la que se garantice la objetividad, transparencia, publicidad, competencia e igualdad en la distribución de fondos públicos, ello sin perjuicio de la posible concesión directa que, de conformidad con lo establecido en la norma aplicable, deberá contar con consignación presupuestaria previa.

—Concesión conforme a criterios objetivos previamente establecidos en la convocatoria a fin de garantizar el conocimiento previo de los mismos por los potenciales beneficiarios.

—Eficacia en el cumplimiento de los objetivos marcados y eficiencia en la asignación de recursos públicos.

—Control y análisis de la adecuación de los fines de las entidades solicitantes a los principios de igualdad y no discriminación en el ejercicio de las actividades subvencionadas.

Artículo 7.

La competencia para aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones corresponde a la Presidencia.

El órgano competente para la aprobación de la concesión de ayudas o subvenciones será la Presidencia o la Asamblea General de la Mancomunidad, en función del volumen de gasto.

Los programas de subvenciones quedarán condicionados a la existencia de dotación presupuestaria adecuada y suficiente.

Con carácter previo al otorgamiento de las subvenciones o concesiones directas (Convenios), deberá efectuarse la aprobación del gasto en términos previstos en las normas presupuestarias de la Mancomunidad Urola Erdia.



Dirulaguntzak edo emakida zuzenak (hitzarmenak) eman aurretik gastua onartu beharko da Urola Erdiko Mankomunitateko aurrekontu arauetan aurreikusitako moduan.

Eta azkenik, dirulaguntzak eman aurretik, emakida arautzen dituzten arauak edo oinarriak onartu beharko dira.

III KAPITULUA: PLANAREN EDUKIA

8. artikulua.

8.1 Plan honetan 2024rako aurreikusitako laguntzek eta diru laguntzek honako hauek jasotzen dituzte bakoitzari dagokion eranskinean:

1. Estrategia helburuak: lortu nahi diren eraginak
2. Diru-laguntzaren lerroak
 - Eskumenaren ukitutako arloak
 - Hartzaileak.
 - Epea
 - Diru kopurua
 - Finantza iturria
 - Ekintza plana

3. Etengabeko jarraipen eta ebaluazioaren erregimena

4. Aurreko estrategia planen ebaluazioaren emaitzak.

8.2 Lankidetz hitzarmenaren bitartez emandako diru laguntzen edo ekonomia zein gizartearen aldetik garrantzi gutxirik duten diru laguntzen kasuan, planaren edukia murriztu ahal izango da Diru Laguntzen Legearen Erregelamenduaren 12. 2 a) atalak xedatutakoaren arabera, memoria batera, non ondokoak azalduko diren:

- Helburuak
- Exekuzio kosteak
- Finantza iturriak

Y finalmente, y de forma previa al otorgamiento de las subvenciones, deberán aprobarse las normas o bases reguladoras de la concesión

CAPÍTULO III: CONTENIDO DEL PLAN

Artículo 8.

8.1 Las subvenciones y ayudas previstas en este Plan para el ejercicio 2024 contienen, en cada uno de sus Anexos:

1. Los objetivos estratégicos: efectos que se pretenden alcanzar.
2. Las líneas de subvención del Plan expresarán:
 - Áreas de competencia afectadas
 - Los destinatarios/destinatarias.
 - Plazo:
 - El importe económico.
 - Fuente de financiación:
 - Plan de acción
3. Régimen de seguimiento y evaluación continua
4. Resultados de la evaluación de los planes estratégicos anteriores

8.2 En el caso de concesión a través de convenios de colaboración o subvenciones de escasa relevancia económica o social el contenido del plan estratégico podrá reducirse, según lo previsto en el artículo 12.2 a) del Reglamento de la Ley de Subvenciones, a la elaboración de una memoria explicativa de:

- Los objetivos
- Los costes de realización
- Las fuentes de financiación

Artículo 9.

El anexo ordena también las subvenciones previstas bajo los siguientes criterios:

- Concedente.
- Modalidad de gestión. Criterio que distingue la previsión en cuanto al procedimiento a aplicar



9. artikulua.

Aurreikusitako diru laguntzak ondorengo irizpideen arabera zerrendatuta agertzen dira ere eranskin bakoitzean:

- Diru laguntza ematen duena
- Kudeaketa mota. Irizpide horrekin diru laguntza emateko aplikatu beharreko prozedura aurreikusten da (lehiakortasun askea, lankidetzaz hitzarmena, programa).

IV KAPITULUA: DIRUZ LAGUNDUTAKO PROGRAMEN ERAGINKORTASUNAREN AZTERKETA. EMAITZEN AZTERKETA

10. artikulua.

Diru laguntza bakoitzaren eraginkortasuna hobeto aztertzeko, txosten arrazoitua eskatuko zaie diru laguntzak jasotzen dituztenei. Txostenean egindako ekintza kopurua eta diru laguntzak zenbat herritarrengan izan duen eragina jaso beharko dira batetik, eta, bestetik, lortutako helburuak justifikatu beharko dira.

11. artikulua.

Zehazki, ebaluatu ahal izateko honako hauek zehaztu beharko dira:

- Helburua.
- Diru laguntza jasotzen duen erakundea, eta hala bada, laguntzailea.
- Diru laguntzaren zenbatekoa.

V KAPITULUA: KONTROLA

12. artikulua.

Deialdian edo dagokion hitzarmenean adierazitako organoak kontrolatuko du plan hau betetzen dela beraz indarrean dagoen bitartean.

Urte bakoitzeko planaren exekuzioa ebaluatzeko txostena aurkeztuko da Batzar Nagusiaren aurrean.

Bertan, gutxienez, honakoak jaso beharko dira: Planaren betetze maila, lortu nahi ziren helburu eta eraginetan diru laguntzek izan duten eraginkortasuna eta efizientzia eta ondorioak; eta horrekin batera, hurrengo Diru Laguntza Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak.

para su concesión (libre concurrencia, convenio de colaboración, programa).

CAPÍTULO IV: EVALUACIÓN DE LA EFICACIA DE LOS PROGRAMAS SUBVENCIONADOS. ANÁLISIS DE RESULTADOS

Artículo 10.

Para un mejor análisis de la eficacia de cada subvención se solicitará de los beneficiarios informe motivado sobre el número de acciones desarrolladas, número de ciudadanos/ciudadanas a los que alcanza la subvención y justificación de los objetivos alcanzados.

Artículo 11

En concreto se deberá detallar para la evaluación lo siguiente:

- Objeto.
- Entidad beneficiaria y, en su caso, colaboradora.
- Importe subvencionado.

CAPÍTULO V: CONTROL

Artículo 12.

El órgano establecido en la convocatoria o en el convenio correspondiente efectuará el control del cumplimiento del presente Plan durante su período de vigencia.

Se presentará anualmente ante la Asamblea General un informe en el que se evalúe la ejecución del Plan.

En dicho informe deberá contemplarse, al menos, el grado de cumplimiento del Plan, la eficacia y eficiencia del otorgamiento de subvenciones en la consecución de los objetivos y efectos pretendidos y conclusiones, con propuesta de sugerencias para la elaboración del siguiente Plan Estratégico de Subvenciones.

Artículo 13

El control y la evaluación de los resultados derivados de la aplicación del citado Plan Estratégico será realizado por la Intervención.



13. atala

Aipatutako Plan Estrategikoaren aplikazioak eragindako emaitzen kontrola eta ebaluazioa kontuhartzailtzak egingo du.

ERANSKINA/ANEXO

2024

1/2024

<p>1. Organo emailea: Urola Erdiko Mankomunitatea</p> <p>2. Gauzatzeko kostuak: 4.300,00</p> <p>3. Finantzatzeko iturriak: Udal-transferentzia arruntetatik datozen diru-sarrerak.</p> <p>4. Partida: 1.0000.481.162.20.01.2023 "Pauso Berriak"</p> <p>5. Kudeaketa mota. Lankidetzeta-hitzarmena. Zuzenean ematea</p> <p>6. Lortu nahi diren helburuak eta ondorioak: Programa hainbat ekimenek osatzen dute eta helburu dute aukera okupazionalak ahalbidetzea eta zabaltzea ingurune arruntetan adimen urritasuna duten eta laguntza ertaina zein neurrizkoa behar duten pertsonei.</p> <p>7. Onuraduna. «Gureak Lanean», «G.Inklusio Fundazioa» eta «Atzegi» entitateek proposatutako, "Pauso Berriak" Programa</p> <p>8. Epea: 2024</p>	<p>1. Concedente: Urola Erdiko Mankomunitatea</p> <p>2. Los costes de realización: 4.300,00</p> <p>3. Las fuentes de financiación: Ingresos procedentes de transferencias corrientes municipales</p> <p>4. Partida: 1.0000.481.162.20.01.2023 "Pauso Berriak"</p> <p>5. Modalidad de gestión. Convenio de colaboración. Concesión directa</p> <p>6 Los objetivos y efectos que se pretenden alcanzar: El programa se compone de diferentes iniciativas que tienen como objetivo posibilitar y extender las oportunidades ocupacionales a las personas con discapacidad intelectual en entornos normales y que requieran un apoyo medio y moderado.</p> <p>7. Beneficiario. Programa "Pauso berriak" propuesto por las entidades «Gureak Lanean», «G.Inklusio Fundazioa» eta «Atzegi»</p> <p>8. Plazo: 2024</p>
--	--

9. Kontu-hartzaileak, kontratuei jarritako eragozpenen, eta hauek ezabatzen dituzten ebazpenen berri ematea.

Lehendakariak, Kontu-hartzaileak, kontratuei jarritako eragozpenen, eta hauek ezabatzen dituzten ebazpenen berri ematen du.

10. Ebazpenen berri ematea.

Lehendakariak, 2023/166tik, 2023/191 arteko zenbakidun ebazpenen berri ematen du.

11. Galdera erreguak.

Ez daude.



Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Urola Erdiko Mankomunitatearen Lehendakariak amaiera eman dio Batzar Nagusiari arratsaldeko 19:05an. Eta horren guztiaren fede ematen dut idazkari kontu-hartzailea naizen honek.

ONTZAT EMANA
UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN
LEHENDAKARIAK

IDAZKARI
KONTU-HARTZAILEAK

Joanes Amenabar Altuna

Olatz Eizagirre Orbegozo

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA
Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



EKS | CSV: **ESKUa9ff376e-737c-41c2-af52-12826f6faf01**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=59910>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=59910>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2023AKTA0010-AKTA/AKTA (UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA)